

“EGONALDI BERDEAK” PROGRAMAREN ARAUAK

1. Programaren xedea eta helburua

“Egonaldi Berdeak” programaren helburua da ingurumen-jasangarritasunarekin konpromiso erreala, egiaztagarria eta jarraitua erakusten duten turismo-ostatuak identifikatu, aintzatetsi eta sustatzea.

Etiketa borondatezkoa da, ez da ofiziala, eta araudi honetan ezarritako ebaluazio-prozesua gainditu ondoren ematen da eskusiboki.

2. Programaren irismean

Programa honako hauetarako diseinatu da:

- Hotelak
- Landetxeak
- Kanpinak
- Aterpetxeak
- Bestelako ostatu arautuak, indarrean dagoen turismo-araudiaren arabera

Ostatuak legez jardun behar dute, eta dagokien erregistro ofizialean izena emanda egon.

Aipatutako enpresa horiek guztiak ETEak izango dira.

3. Ebaluazio-irizpideak

“Egonaldi berdeak” etiketa lortzeko, ostatuak irizpide hauetako batzuk betetzen dituela egiaztatu beharko du, gehienez ere 12 hilabeteko epean:

3.1. Energiaren hornidura % 100 berriztagarria

Ostatuak baldintza hauek bete behar ditu:

- Argindar-hornidurako kontratu bat izatea, non % 100 berriztagarria den energia-ziurtagiria duen, ala
- Energia berriztagarria norberak sortu duela egiaztatzea (eguzki-energia, eolikoa, etab.), establezimenduaren argindar-kontsumo osoa estaltzeko nahikoa.

3.2. Ezarritako energia-eraginkortasuneko irtenbideak

Ostatuak energia-eraginkortasuneko neurri adierazgarriak dituela egiaztatu beharko du, hala nola:

- Eraginkortasun handiko sistemen bidezko klimatizatzea
- LED argiak ostatu osoan edo gehiengoan. Kontsumoen kontrol adimenduneko sistemak
- Isolamendu termiko hobetua edo energia-hobekuntza ziurtagarriak.
- Instalazio fotovoltaikoa

3.3. Iberdrolaren Smart produktuak kontratatzea

Ostatuak Iberdrolaren Smart ekosistemako produktu hauetako bat gutxienez izan beharko du kontratatuta:

- Smart Mobility (ibilgailu elektrikoak birkargatzeko guneak).
- Smart Solar (autokontsumoa, bateriak edo eguzki-soluzioak).
Aeroterma Iberdrola.
- Iberdrolaren Smart beste edozein produktu, eraginkortasunera, autokontsumora edo energiaren kudeaketa adimendunera bideratuta badago.

4. Atxikitze-prozesua

4.1. Eskaera

Hona hemen ostatuak aurkeztu behar dituen agiriak:

- Egonaldi Berdeen hitzarmenaren onarpena
- Hitzarmenaren eranskinetan eskatutako dokumentazioa
Gutxieneko dokumentu-ebidentziak, sistema eraginkorrak izanez gero
- Programari atxikitze baldintzen onarpena

4.2. Ebaluazioa

Prozesuak hiru maila ditu:

- Ostatuaren autoebaluazioa
- Programako taldeak dokumentuak berrikustea
- Ausazko edo aldizkako egiaztapena, honako hauek barne har ditzakeena:
 - Dokumentuen berrikuspen gehigarria
 - Argazkiak/egiaztagiriak eskatzea
 - In situ bisita (zuzenean edo kanpoko ikuskatzaile baten bidez)

5. Iraupena eta berritzea

Iraupena 12 hilabetekoa da.

Berritzeko beharrezkoa izan daiteke:

- Ebidentziak eguneratzea
- Ikuskaritza berriak
- Berrikusitako edo eguneratutako irizpideak betetzea

6. Atxikitako ostatuaren betebeharrak

Ostatuek onartu egiten dute:

- Irizpideak betetzen jarraitzea indarraldi osoan.
- Ziurtagiriari eragin diezaiokeen edozein aldaketa garrantzitsuren berri ematea.
- Ikuskaritza eta egiaztapen gehigarriak egiten uztea, eskatuz gero.
- "Egonaldi Berdeak" marka baimendutako formatuetan eta kanaletan soilik erabiltzea.
- Egiaztatu ez diren ingurumen-baieztapenik ez egitea.

7. Kentzea, etetea edo ukatzea

Etiketa kendu edo eten ahal izango da, baldin eta:

- Ostatuak irizpideak betetzeari uzten badio.
- Eskaeran informazio edo ebidentzia faltsuak detektatzen badira.
- Eskatutako egiaztapena onartzen ez bada.
- "Egonaldi Berdeak" markaren erabilera okerra egiten bada.

Eskaera idatziz jakinaraziko da, posta elektronikoaren bidez, eta bertan arrazoia azalduko da eta 15 egun naturaleko epean alegazioak egiteko aukera emango da.

8. Erantzukizuna

Egonaldi Berdea etiketa lortzea ez da ziurtagiri ofiziala, eta ez du bermatuko ostatuaren etorkizuneko ingurumen-portaera.

Programaren entitate kudeatzaileak:

- Ez du bere gain hartuko erantzukizunik, ostatuak beren kabuz egindako ingurumen-adierazpenengatik.
- Konpromisoa hartzen du berrikuspen-prozesuetan ahalik eta arreta eta gardentasun handienaz jarduteko.

9. Araudiaren eguneratzea

Iberdrolak araudi hau eguneratu ahal izango du, hobekuntza teknikoak, araudi berriak edo ingurumen-praktika hobeak erantsi aldera.

Ostatuei gutxienez 30 egun lehenago jakinaraziko zaie.

10. Indarrean jartzea

Araudi hau 2026/04/30ean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera aurkezten diren eskaera guztiei aplikatuko zaie.